

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

5158

EBAZPENA, 2018ko urriaren 8koa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Aginduan ezarritako laguntzen deialdia ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2018ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

2018ko uztailaren 16ko EHAA (136. zk.) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira paisaiaren 2018ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 10ean amaitu zen, aipatutako aginduaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, bost eskabide sartu dira, eta zerrenda honetan jasota daude:

	Udala	Proiektuaren titulua	Aurrekontua BEZik gabe.
1	Lapuebla de Labarca	Plan de acción del paisaje de Lapuebla de Labarca	12.390,00 €
2	Valdegovía/Gaubea	Proyecto para la redacción del plan de acción del paisaje de Valdegovía	23.000,00 €
3	Mañaria	Proyecto de plan de acción piedra y paisaje en Mañaria (Bizkaia)	14.900,00 €
4	Ea	Solicitud de subvención para la elaboración del plan de acción del paisaje en el territorio de Ea (Bizkaia)	13.850,00 €
5	Urnieta	Recuperación de la regata de trunkax dentro del trazado industrial y urbano de Urnieta	29.100,00 €

Diru-laguntza hauek arautzen dituen 2018ko ekainaren 27ko Aginduaren 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, irailaren 19an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikuluko horren 2. apartatuan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

2018ko ekainaren 27ko Aginduaren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 300.000 euro bideratuko dira diru-laguntzak emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 9.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta I. eranskinean adierazitako puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den.

2018ko urriaren 22a, astelehena

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2018ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalantzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia), eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiaren ekintza-planak idazteko diru-laguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejuei, adierazitako zenbatekoekin:

	Udala	Proiektuaren titulua	Puntuak	Proposatutako zenbatekoa
1	Urnieta	Recuperación de la regata de trankax dentro del trazado industrial y urbano de Urnieta	7,15	26.190,00 €
2	Lapuebla de Labarca	Plan de acción del paisaje de Lapuebla de Labarca	6,8	11.151,00 €
3	Mañaria	Proyecto de plan de acción piedra y paisaje en Mañaria (Bizkaia)	6,5	13.410,00 €
4	Ea	Solicitud de subvención para la elaboración del plan de acción del paisaje en el territorio de Ea (Bizkaia)	5,7	12.465,00 €
5	Valdegovía/Gaubea	Proyecto para la redacción del plan de acción del paisaje de Valdegovía	5,5	20.700,00 €
GUZTIRA:				83.916,00 €

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 8a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.